



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

SO!

# numerikoa

# numérique

---

Nola bizi dute numerikoa euskal ibarretan? Garapen Kontseiluak eztabaida ireki du eta herritarrei hitza eman die. 150 bizilagunek parte hartu dute Barkoxen, Alduden eta Donazaharren antolatu hiru elkarretaratzeetan, Odace, Barkoxe Bizi, Azia eta Indar Développement erakundeekin elkarlanean.

Trukaketa horien aberastasunak ekarpen baten gaia eman du. 2019ko irailean onartua izan da. Hemen aurkituko duzu sintesia, begi hets-ireki batean = *So!*

## DIAGNOSTIKOA

- Numerikoa **bizilagunak finkatzeko** eta herrietan **aktibitateak sortzeko** tresna da.
- **Garapen estrategikorako palanka bat enpresentzat** eta lurraldeko gaitasunen garatzeko.
- **Laborariak** bereziki hunkiak dira: urrats administratiboak, gero eta gehiago, Internet bidez egiten dira eta sare arazoak badira.
- Leku batzuetan, **sarea negargarria da**: bizilagunek eta enpresek **ezintasun sentimendua** badute gune zurietan, eta **haustura numerikoaz** kezkatuak dira.
- Partikular, profesional eta enpresa guzietan ez dituzte behar berdinak: **abonamendu eskaintzaren masifikazioa ez da egokia**.
- **Zuntzaren ekarpenei** buruzko dudak handitzen ari dira.
- Erabiltzeko moduak kontrolatu beharra: gazteei zuzendu numerikoari buruzko hezkuntza, eta deskonektatzeko eskubidea.

## DESAFIOAK

### Urgentziazkoak lehenetsi eta antolaketa digitala berriz pentsatu

- Bizilagunek ezin dute lau urtez beha egon **herriak biziberritzeko** eta Euskal Herriko barnealdearen garapenerako ezinbestekoa den sare fidagarri bat ukaiteko.
- **Aterabide alternatiboak** landu, lehentasunak ezarri, eta sarearen egoeraren **diagnostiko** oso zehatza egin behar da, orain.
- **Aro numeriko berri bat** ireki behar da: ekologikoa, arduratsua, humanista.



## GURE PROPOSAMENAK

**Azpiegitura numerikoen hautuak berriz bideratu gure lurraldeetako lehentasunezko beharrei erantzuteko.**

- ▶ Sare estaldura beharrei erantzun.
- ▶ Lehentasunez, herri-zentro eta enpresa bakoitza zuntzaz hornitu, horretara dedikatu sareetan.

**Numerikoa garapenerako eta erakargarritasunerako tresna gisa hartu, auzoak, herriak eta ibarrak biziberritzeko.**

- ▶ Herri bakoitzean leku *superkonektatu* bat sortu!
- ▶ Herri bakoitzean "*baserrialdeko hirugarren leku konektatuak*" sortu, tokiko garapen tresna gisa.

**Euskal Herriko numerikoaren ekosistema agerian eman eta herritarrak horretaz jabe egitea ahalbidetu.**

- ▶ Herritar, bizilagun eta hautetsien ekintza gaitasunak emendatu.
- ▶ Lurraldeak numerikoaren erabilpenen menperatzeko duen ekiteko ahalmena emendatu.

**Numerikoaren garapen iraunkorreko proiektu bat definitu.**

- ▶ Jendeari kasu ematen dion eta ekologikoa den numeriko baten aldeko lan prospektibo handia ireki.





CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE  
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

Garapen Kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko eta sozialeko 400 eragile baino gehiago biltzen ditu: herritarrak, erakunde sozio-profesionalak eta Euskal Herriko elkarte adierazgarriak.

Garapen Kontseiluak lurraldeko desafio handiei buruzko eztabaida publikoan parte hartzen du, eta bere ikuspegia eta proposamenak ekartzen ditu lurraldearen garapen edo antolaketa gai nagusiei buruz.

Euskal Herriko gobernantzaren eragile nagusietarik izan da 1994tik 2017ra eta, 2018az geroz, Euskal Hirigune Elkargoak bere politika publikoen laguntzeko eginkizuna eman dio. Ideia-laborategia da; gizarte-berrikuntzaren zerbitzura dago eta lurralde-dinamika berriak sortzen laguntzen du.